

2008KO AZAROAK 27

27 DE NOVIEMBRE DE 2008

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008KO AZAROAK 27

DIA: 27 DE NOVIEMBRE DE 2.008

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA

Lide AMILIBIA BERGARETXE

Andoni ETXANIZ OSA

Miren Nerea EPELDE AZKUE

Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA

Pilar ETXABE IRIONDO

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Cristina FORCADA UNANUE.

Paloma HEREDERO NEGREDO

Manuel ZUBIA ARTABE

Unai MANZISIDOR ANDONEGI

Xabier OLAIZOLA ANTIA.

IDAZKARIA: LIOBA MAIZA RECONDO

SECRETARIA

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du. Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, hasi egingo gara Cristina ia etortzekotan usten dut dela eta, gaur azaroak hogeitazazpi ohizkoa den bezala, ohizko plenoari emango diogu hasiera, hileko azkenengo ostegun bezala.

Aurrenengo puntua:

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA (2008.09.25 eta 2008.11.06)

Nik hala eta guztiz ere alde zuzenetan eta ondo iruditzen baldin bazaizue, nik proposamen bat egin behar dut, hemendik aurrera iruditzen zait eta aktak ere azkenean luzatu egiten dira mordua eta interbentzioko pentsatu dudana da bakoitzak hamar minutu eduki ditzala bakoitzak bere esposizioa edo azalpena egiteko eta ondorengo turno batean bost minutu, ni jardungo naiz pixkat hori kontralatzeko, honekin ez dut esan nahi denak hamar minutu pasa eta ixildu behar duenik, baino bai behintzat, gutxienez denak denbora kontrolatzen joateko, gutxi gora behera hamar minutu pasatzen direnean esango dut hamar minutu pasa dira etbr... ez?

Ondo iruditzen baldin bazaizue, bestela nik usten dut plenoak asko luzatzen direla, gaurko plenoa ez zait iruditzen aurreko plenoa bezala denik, baina bueno, ondo iruditzen bazaizue, hasiko gara metodologia horrekin eta datozen plenotarako ere balio dezala, ondo iruditzen baldin bazaizue.

Nik besterik gabe, aurreko bileretako akten onarpena beti bezala, aurrenengo puntu bezala.

Pilik esaten dit, aktan, hamaikagarrengoa Unai Manzisidor azaltzen dela eta ez zela azaldu como asistente, ez naiz akordatzeko, zinegotzi bezala, azaroak seikoan, barkatu, eh?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aurrekoan, nik usten dut ez zegoela,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, bai, bazegoen, bai...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Igual aurrekoan izango zen,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bateren batek, zeozer esatekorik, M. Eugenia? Ez,
Emiliano? Ez,

Besterik gabe, bigarren puntua OGASUNA.- Ez dakit, Cristina ez da azaltzen baina hasi egingo gara,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bai

ALKATE-LEHENDAKARIA:

2.1.- UDALEKO -8-. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA, Ogasuneko batzordeburuak Joseba, nahi duzunean,

JOSEBA JOSU ASPIAZU AZKARRAGA JNA.: Zortzigarren kreditu aldaketaren proposamena da hau, bi batzordetan ikusi da, aurrengoan proposamena egin zen eta bigarrenean diktamena.

Hemen garrantzitsuena da bi partida berri sartzen dira, batetik anbulategiko urbanizazioa eta bestetik hor jartzen du arraun lokala baina berez da ur-kiroletako lokala, sartzen dira baita piragua, surf, eta... ez dakit, surf ez, orduan arrauna eta piragua izango litzake, ez? Baina, bueno arrauna bakarrik ez dela.

Orduan partida bi horiek suposatzen dute miloi eta pico eurotan, miloi eta berrogeitahiru mila euro eta hori finantziatuko litzateke goian dauden beste partida batzuekin, eta orokorrean bi partida dira, PERCOko partida guztiak, 2005etik datozenak, 2005, 2006, 2007 eta 2008 eta bestea da Erkibeko, Erkibe expropiatu behar zen partidatik zati bat, murrizten da, orduan hau ikusita dago eta diktamena egin zen azkenengo batzordean eta ANV-k eta EA-k alde bozkatu zuten eta PNV eta PSOE abstenitu egin ziren, ez dakit, ez dut uste merezi duenik diktamena irakurtzea eta hau da, ez dakit beste bateren batek zerbait daukan gehiago esateko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai,

Guk, egiten duzuen proposamen honen inguruan, egiten dugun balorazioa, gure ustez, hemendik dihoa: alegia, azaroko azkenengo batzordeko datuen arabera, aurtengo presupuestoko inbertsio exekuzio maila, azaroan esan dudana bezala, % 14,3koa da; orain berriz azaroko bukaeran gaudela,

aurkezten duzute miloia eta berrogeitahiru mila eurotako kreditu aldaketa bat.

Cristina etortzen da,

Gure ustez izan daiteke zuen asmoa, kreditu aldaketa honen bitartez lortu nahi duzuen, nolabait, azkenengo momentuan bada ere, eta ikusita gainontzeko inbertsioetako partidak gauzatzeko zailtasun ikaragarriak izango dituzuela hemendik urte bukaera bitartean, ba... nolabait exekuzio maila pittin bat igotzeko aldera, ba... kreditu aldaketa honen bitartez proposatzen duzutena ba... arrapalada batetan gauzatzea.

Zuek seguruenik ezetz erantzungo duzue, baina guk horren susmoa badaukagu.

Bestaldetik, bi partida planteatzen dituzue, bi asmo, bi proiektu berri, alde batetik anbulategiko inguruko urbanizazioa egitea eta bestetik arraun lokala esaten diozuten lokal horren erosketa.

Anbulategiko urbanizazioa egin, egin beharko dela eta beharrezkoa dela egitea, horretan ez daukagu inolako zalantzarik, ezingo da dagoen bezala laga eta. Proiektua adjudikatu zenuten, edo egin duzue, eta bale, horren ondorioz?... Baina guk ditugun galderak honen inguruan bat baino gehiago dira eta alegia, momentu honetan kreditu aldaketa egiten dela, gauza bat eta bestea kontutan hartuta, pentsatzen dugu nekez hasiko direla urbanizazio lan horiek, ba... hemendik bizpahiru hilabeterarte,

Baina are gehiago lokalaren erosketaren kasuan, ze... lokal hori oraintxe esan duzue ez dela bakarrik arraun taldearentzat, dela piragua eta beste gainontzeko itsasoko kirol taldeentzat, baina ez zaigu, nik uste dut, gehiegi esplikatu zein den lokal horren azken asmoa, den gimnasioak egiteko, bulegoak bertan ezartzeko, entrenamentuak egiteko, fosuak edo aparkaleku gutxienez diren... Eta edozein dela ere erabilera hori, ba... ez da bakarrik lokala eroste horretan geratu beharko, baizik eta egokitzapen lan gutxieneko batzuk egin beharko zaizkio, horrek ere bere inbertsioak beharko ditu eta bere denbora... eta ez bakarrik barruko egokitzapen lanak egiteko, baita ere, pentsatzen dugu nahiz ez dakigun, sarbideak egokitzeko. Guzti horren inguruan ez daukagu informazio gehiegirik, batere ez daukagula ez esatearren, baina dena dela erosketatik haratago usten dugu lokal horren itxuratzeak beste behar batzuk izango dituela bai denboran eta bai dirutan.

Bestaldetik, hau batzordean komentatu genuen, edo galdetu genuen, ea lokalaren erosketa gauzatzeko expediente administratiboa behar den bezala gauzatu den. Antza denez, bai, baina baita galdetu genuen lokal horren prezioa, ea balorazioa egin den aurretiaz, eta baietzko erantzuna jaso genuen, baina nork egin duen galdetu genuenean, ez genuen erantzunik jaso, eta bi alde daude kontratu batean: eroslea eta saltzailea, eta balorazio hori bata edo besteak egindakoa izan daiteke eta, desde luego, nahiko

genuke lehengoan jasotakoa baino erantzun zehatzago bat, alegia, zeinek markatu duen edo zeinek egin duen lokal horren salneurriaren balorazio teknikoa.

Eta finantzeatzeko berriz, planteatzen dira aurtengo aurrekontuaren inbertsioetako zenbait partiden gutxitzeak, PERCO-ko partida asko agertzen dira, aurreko urteetatik ba... aurtengo aurrekontuetan erantsitakoak. Gu harrিতuta geratu ginen ikusi genuenean finanziaio iturri hori, ze... PERCO programa, programa finalista izan da beti, alegia, inbertsioetan, edo gastatzeko inbertsioetako partidetan agertzen zen diruaren gehiengoa ba... atzetik Jaurlaritzak ematen zuen finanziaio batekin lotuta egoten zen, hau da, sarreretan bere isla izan behar zuen. Baina kasua da, nonbait, 2008ko aurrekontuetan, aurrekontuetan sartu zela inbertsio partidetan PERCO programa, baina inork ez ziola arretarik jarri PERCO programak, ba... berez izan behar duen finanziaio iturriari. Eta pentsatzen dugu horregatik erabili daitekeela kasu honetan, ba... kreditu aldaketa posible egin ahal izateko, baina klaro, zertarako sartu ziren PERCO programako partidak ez baldin bazegoen ez egiteko asmorik, ez dirulaguntzak lortzeko asmorik, ez eskaerak egiteko asmorik? Eta hori baino askoz ere larriagoa kasu honetan: “adquisiciones expropiaciones”-etikan kentzen dira bostehun eta hirurogeita zazpi mila zortzirehun eta hirurogeita hamazazpi €. Kontua da iaz miloia eta bederatzirehun mila € zeudela partida horretan eta hain zuzen Erkibe etxea erosi edo espropiatzeko zeukaten... helburua zeukaten diruak zirela. Zortzirehun mila € desagertu ziren, orain beste aipatu ditudan horiek desagertzen dira, partida horretan geratzen dira bakar-bakarrik hirurehun mila €; hirurehun eta hogeita hamabi mila €. Eta hori bai guri iruditzen zaigula larria ze... azkenenean ez dakit nola pentsatzen duzuen indarrean dagoen araua betetzea, ez duzuten pentsatzen hori betetzea, hau da, udalak erabat utzi duen Erkibe publiko izateko asmoa, parkinaren... (egunen batetan egingo dela oraindik ere espero dugun parkin horren) sarbidea nondik emateko asmoa duzuen etabar luze bat.

Eta azken finean gure ezezko botuaren arrazoi nabarmenena izango da, gauden alturretan, momentu honetan beharko genuke datorren urterako aurrekontuaren borradorea esku artean ba... hori lantzen jarduteko eta ez daukagu. Baina berez, eta gauzak bere normaltasunean joan ezkerro, ba... urtea amaitu aurretik 2009ko aurrekontua onartuta izan beharko litzateke eta pentsatzen dugu hainbestearainoko kopurua dituzten inbertsioetako partidak beste inbertsioetako partida batzuen txikitetik finantziatu nahi direnak, ba... txertatuta egon beharko luketeela datorren urteko aurrekontuaren barruan; gauzen mekanika logiko bat jarraituz, eta ez ba... hasiera batean esan dudan bezala azkenengo momentuko arrapaladazko neurri baten bitartez, kreditu aldaketaren bitartez planteatuz. Azken finean esan dudan bezala, anbulategia nahi eta nahiez egin beharko delako, baina akaso presupuestoaren prelazioa egiterakoan eta herri honek eduki

ditzazkeen beharrak denak kontuan hartuta, ba... lokalarena aurrerago edo atzerago joan daitekeelako, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: De acuerdo, con lo que ya comentamos en la comisión de Hacienda, nosotros en ese momento nos abstuvimos y vamos a mantener lógicamente la postura, más que nada, para que conste en acta aquí en pleno,

La postura nuestra viene derivada de a su vez de una... lo que entendemos nosotros una postura política que hace dejación de dos temas en concreto y como tal postura política favorece otros dos temas como son la ejecución de la urbanización del ambulatorio y la compra del local, no son criticables en sí como tal sino de la manera que se ejecuta o por qué se ejecuta que nosotros lo entendemos así.

Las partidas del PERCO demuestran una clara voluntad de no seguir por esa vía de lo que es una parte de rehabilitación de dar vida a los cascos antiguos a los cascos históricos y por otra parte además pues esas partidas que están ahí asignadas no cuestan dinero al ayuntamiento porque luego las devuelve el Gobierno Vasco previo gasto de las mismas, por lo tanto, creo que podían haber sido unas partidas que se podían haber quedado ahí con un mínimo de voluntad política y buscar en todo caso si se vé en la necesidad expresa de hacer este cambio otras partidas que probablemente y dado el desarrollo que llevamos del presupuesto este año, pues las tiene que haber sin que tuvieran esa consecuencia, eso en cuanto a la primera y la segunda pues vemos que nos pasa exactamente igual es un algo que ya lleva mucho tiempo de retraso como es el tema de la plaza de abajo y sobre todo el tema de la casa Erkibe, pues bueno al retirar esa partida económica, aunque entendamos que este año, ya a la altura que estamos no se iba a ejecutar, pero también es cierto que si hubiera voluntad política en quince días se puede llegar a un acuerdo, es cierto que si no la hay podemos tirarnos cinco años y no llegar nunca a un acuerdo, pero si la hay en quince días o menos se podía incluso haber llegado y toda esa partida estando ahí se podía ejecutar eso que tenemos ahí pendiente y ése retraso que llevamos cosa que ahora con esto, pues es prácticamente imposible por no decir imposible,

entonces esas dos consecuencias políticas que entendemos nosotros que hay ahí no nos gustan, por lo tanto creemos que son erróneas, que no estamos en contra de lo que es el cambio de crédito, porque va a ejecutar otras dos cuestiones que por otra parte desde luego lo del ambulatorio creo que es necesario, puesto que si empieza a funcionar el nuevo ambulatorio en las mejores condiciones posibles y sobre todo el tema de accesibilidad tiene que estar corregido y por lo tanto es una partida positiva; no tanto la

otra que después del tiempo que lleva esperando podía esperar un año más tranquilamente y haber ejecutado el tema de Erkibe como he dicho anteriormente con un poco de voluntad política; por lo tanto vamos a mantener la abstención por esas dos cuestiones y esperemos que en un futuro se puedan retomar estas dos cuestiones de cara al año que viene y poderlas ejecutar de una vez, aunque nos tememos que con lo que se va marcando aquí difícilmente,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Cristina, zerbait esan nahi,

CRISTINA FORCADA UNANUE.: Como esto lleva mi compañero de Aralar, lo de adquisición y expropiación lo de los novecientos mil euros está relacionado con la casa Erkibe, me lo podeis aclarar?

Venía con la idea de que íbamos a aprobar la modificación de crédito de la compra del local de remo y de la urbanización del ambulatorio, y me encuentro con esta de Erkibe, como yo no estoy en las comisiones de Hacienda,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Para poder financiar, diru hori lortzeko Erkiberen partidatik hartzen dira diru horiek, kopuru horiek sortu ahal izateko erabiliko ez diren beste partida batzuetatik hartuko dira diru horik,

CRISTINA FORCADA UNANUE.: En principio, la forma en que se ha hecho los cambios de partida como ha dicho Emiliano, a nosotros tampoco no nos gusta, el procedimiento que se ha tomado pero no estamos, estamos a favor de que se tomen estas iniciativas,

Las dos van para adelante, son importantes, sobre todo la del ambulatorio, la otra pienso que se podía haber dejado para el año que viene lo de la compra del local de remo, pero bueno en principio no tenemos ningún problema, aunque no nos gusta el procedimiento como se ha hecho,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Lehenik eta behin, lokalaren inguruan ba... izena edo batailatzen denean, batzuetan ez dira izen edo batailu oso egokiak izaten, ba... hemen zoritxarrez, ba... hasiera batetik arraun lokala, arraun lokala ba... horrela hitzegiten hasi gara ba... hori ez da arraunentzako lokal bat, lokal hori izango litzateke itsaskiroldegian gaur

egun dauden iharduera desberdin batzueri edo guztiei zerbitzua emateko eta baita ere turismo bulegoan edo turismoan ditugun beste behar batzuk asebetetzeko. Gaur egun ba... itsaskiroldegian sartu behar diren erremienta eta lanabez guztiak sartzeko, lekuz oso oso gaizki dabilta eta aspalditik bai piragua, bai arrauna, bai beste... bertan dauden elkarte batzuk eskatzen ziguten irtenbide bat gure lokal propioetan ere piraguak eta arraunak eta egon badaude gaur egun eta ez dago ba... leku sobrarik aldiz ba... faltan daude, eta bueno, bertan ikusi genuen aukera egoki bat izan zitekeela ba... itsaskiroldegitik hogeita hamar metroetara zeuden lokal hauek hartzera edo eroatera.

Nola ez, LKS-ri, LKS-ri nola ez egin zen balorazioa, eta LKS-ek egin zuen balorazioa hori, LKS-ek egin zuen balorazioa udalak eskatuta, eta balorazio horretan LKS-ek ezarri zuen ba... prezioa edo balorazioa izan zen bostehun eta hirurogei mila eurotako; bostehun eta hirurogei mila eurotan baloratu zuten eta guk ba... bueno jabeei helarazi genien balorazio hori, kopia bat eman genien jakidun ziren hasieratik gu eduki eta berehala deitu genien eta kopia bat eman genien beroiek ere jakidun izateko, zer balorazio geneukan esku artean, beroiei egokia iruditu zitzaien, lan txukuna iruditu zitzaien eta balorazio hori ba... bueno erabilgarri bezala ere ba... aitortzen zuten ere bazela, nola ez, hala uste genuen, horretarako eskatu genuen eta, eta gero akordio batetara iristeko orduan, ba... akordioa topatu dugu lauhun eta berrogeitahamar mila eurotan, LKS-ek egin zuen balorazioaren % 20 bat jeitsita.

Etxeko teknikariek ere hitzegin dugu eta prezioaz behintzat, oso prezio egokia dela diote eta kokapena ere oso egokia dela, hor arauetan inguru horretan zesio batzuk edo pendiente zeudela egiteko esaten zen, baina bueno egon gara industaketa lan batzuk eginez, bai araua idatzi duen teknikariarekin, eta bai beste ba... udaletxeko mekanikariek, juristekin, eta zesio horiek nola egikaritu behar ziren oso oso argi ez zuen inork ikusten, egia esan, eta gomendatu ziguten aukeran ba... hori lortzea eta prezio horretan lortzea oso aukera egokia zela udalarentzako eta bizilagunekin edo jabeekin akordio batera iritsi baginen ba... aprobeatzeko akordio hori eta lortzeko kontua beharra ere nabarmena zelako eta bai piragua, arrauna eta beste leku guztietatik zain daudelako, irrikitzen daudelako, lekua edukitzera ba... bertan almatzen, almatzen baten edo almatzena iharduera bat aurrera eramateko, lekuz ez dabilta ondo, ba... bueno trinauk, piraguak, bizikletak, udalak dituen batelen bat edo beste eta udalak dituen ba... brigadako beste lanabez batzuk ere bertan gorde ahal izango dira, erabilera anitza izango du eta printzipioz orain eroatera goaz eta hasiera baten ba badu bere rampa ere badu, bere atea ere badu, eta hasiera batean ba... almatzena hori ba.. ahalik eta modu pixkorrenean martxan jartzeko borondatea daukagu eta horretarako da lokal hori, beraz balorazioa egina dago, akordioa lortua dugu eta akordioa ba... nik uste dut ba... udalarentzako puntu edo egoki baten lortu dela, jabeak ere gustora geratu

dira edo behintzat egokitzen hartu dute egin zaien eskaintza eta behar diren txostenak ere eginak daudenez, ba... ez dakit, “criterio de oportunidad” edo delakoa ba... erabiltzera goaz eta kontua hau ba.. ahalik eta pixkorren kitatu eta dauden behar horiek asebetetzeko ba... lokala udalaren herriaren esku jartzeko.

Beste alde batetik, anbulategiko urbanizazioa ba...bueno denontzako nahiko sorpresa izan da, ba... egin behar izate hori ba... etorri zaigunean gainera, Zarautzen ez dela asko inauguratu dute bertako anbulategia, han ba... urbanizazio eta guztiz inauguratu dute hemen Zumaiian ba... Osakidetzakoak urbanizatu beharrik ez zutela edo... komentatu zigutenean, gu harrিতa geratu ginen, kontua da beroiek ba... berea den partzela edo zedituta dagoen partzela bai bertan lanak egingo dituela baino, beroiena ez zen partzelan aktuatzeko intentziorik ez zutela egin beharko dutena da zegoen urbanizazioaren balorazio bat egin, zeren, hura puskatu edo desegin egin da eta Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, kopuru horiek jarri beharko ditu eta ez dakit, baloratuko da zer den puskatu dutena eta reposizioa zenbat kostatzen den, baino beste dena Zumaiako kasuan Zarautzen ez bezala ba... udaletxetik bideratu beharko dugu, zergatik PERCOtikan? PERCO-ko partidak 2005, 2006 eta 2007tik datozen partida batzuk dira bere garaian gobernuan zirenak ezarri zituztenak eta guk, gaur egun PERCO programa aldatu dela ere jakin badakigu, orain uste dut merkagune deitzen dela eta partida hauen funtzioa edo erabilera ba... argiegi ere ez geneukan eta argi daukaguna da ba... anbulategiaren urbanizazioa behar-beharrezkoa dela eta hor ba... beste partida horiek bideratzea egokia iruditu zaigu.

Emilianori, bai, erantzun nahiko nioke, Erkiberen kontuarekin diola, borondate politikoa egongo balitz, segituan akordio batetara iritsiko ginatekeela ba... Erkibe etxearen kontuarekin, bueno, borondate politikoa bakarrik izango balitz, ba... bai akordioa egingo litzateke, baino akordio hori ez dago borondate politikoen intentsidadearen baitan, baizik eta akordio ekonomiko baten baitan eta familiaren pretentsioak eta udalak ordaindu dezakeena ba... ez datoz bat, eskeintza bat egin zitzaizen bere garaian, borondate politikoa egon bazegoen, baina familiak eskatzen zuena eta guk eskeintzeko kapazidadea edo ahalmena genuena ez zen bat etorri, hor borondate politikoa ez da arazoa, hor dirua da arazoa azken finean eta datozen garaiak etorrita, ba... dirua gero eta arazo gordinagoa izango da, aurten Erkiberen partida erabilgarri, hor dago baino erabiliko den edo nik uste dut nabarmen dela aurten ez dela erabiliko, hurrengo urtean berriz ere partida hori osatu beharko ote den hurrengo aurrekontuetan, hori hitzegingo da, baino aurten hor alferrik dagoen partida bat aurten erabiltzeko ba... itxura gutxi duelako ba... bai, ikusten dugu erabili behar dugun lekuan beste eraginkortasun bat edukiko duela eta remanentean ba... hortxe egonean egotea ere ez zaigu iruditzen diruak hor funtzio onerik egiten duenik, orduan ba.. bueno ez da azkenengo orduko diru aldaketa bat

gure burua libratzeko edo zuritzeko, bi behar asebeste nahi ditugu, alde batetik anbulategi berriaren urbanizazio berria egin behar da, eta gero bestetik etxeko lanak egin eta gero, akordio guztiak egin eta gero, lokalen beharra nabarmena dela kontuan hartuta, ba... lokala erosteko edo lortzeko egiten dugu diru aldaketa hau, baino ez urtea bukatzeaz dagoelako baizik eta egin behar diren etxeko lanak eginak daudelako, lortu behar diren akordio denak lortuta daudelako eta orain lortu baditugu eta ez lehenago, ba... orain planteatzen dugu eta ez lehenago,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik bai nahiko nuke aipatu bi gauza, labur-labur, bat alde batetik lokalaren erabilpena zertarako izango den aipatua dago kirol batzordean behin baino gehiagotan ba... bueno Andonik esplikatu dituen eralbipen guzti horietarako eta hori kirol batzordean dagoeneko aipatuta dago, uste dut batzorde batean baino gehiago.

Eta bestaldetik Emilianok aipatzen zuen PERCO-ren jeitsiera honek, badirudiela ez dugula edo irudipenik ez daukagula, helburu zehatzarik ez daukagula ba... merkataritza berpizteko arloan, ez?

Esan nahiko nuke Turismo batzordean, behin baino gehiagotan, ekintza zehatz batzuk aipatu direla, gertatzen dena da datorren urtetik aurrera martxan jarriko diren ekintzak direla, besterik gabe, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, ba... ez dakit kirol batzordean hainbeste xehetasunez gauzak esplikatu al dituzuen edo ez, gu ez gara joaten batzorde horretara eta Unai ez dago hemen, baina desde luego, balorazioak eta prozedurak eta zesioak aipatu dituzu Andoni, horrelako informaziorik edo aipamenik ez hirigintzako batzordean eta ez bestelako batzordeetan ez dut uste egin denik. Adibidez, zer da zesioen kontu hori? Eta zer da “el criterio de oportunidad”? Eta hainbestearainoko leku beharra daukate itsaskiroldegiko erabiltzaileak, eta hori aspaldidanik hala esaten dutela badakigu, baina guk talde politiko bezala bageneukan horretarako irtenbide arrazoizkoa eta herriarentzat merkeagoa, eta ez hogeitahamar metrotara, baizik eta etxean bertan ba... ludoteka lekuz aldatuz. Ludotekak han jarraitzen du, Torreberri ludoteka jartzeko asmoari uko egiten zaio; nola hori horrela den, ba... egunen batean ludoteka nonbaiten jarriko da, baina bitarte horretan itsaskiroldegikoak lekua behar dute eta orduan bostehun mila euroko lokal baten erosketa egiten gastatzea erabakitzen da, hori erabakitzen da urtea bukatzeaz dagoela, inolako aurreprebisorik egin gabe, hurrengo aurrekontuan sartu beharrean, eta bueno... badaude gauzak edo erak, ez? gauzak egiteko eta erabakiak hartzeko... eta guri ez zaigu iruditzen hau denik aukera guztien artean egokiena, akaso.

Eta mesedez, zesioena aklaratzea nahiko nuke
Eta beste gauza bat: Zarautzen udalak egin du anbulategiko inguruko
urbanizazioa.

ALKATE/LEHENDAKARIA.: Emiliano,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Dos cositas nada más, si yo he expuesto ese tema en la cual pensamos nosotros que es así, totalmente, podemos estar equivocados no cabe la menor duda, pero eso lo diré cuando vea que la voluntad política vuelve a mantener esto, porque consideramos que es algo positivo de cara al municipio y por lo tanto estaría bien que de una vez por todas pues algo que es positivo y no estoy diciendo que lo demás que se está aprobando o que se pretende aprobar ahora no sea positivo, sino que por lo menos como hemos dicho, yo creo que todos, la segunda parte podría tranquilamente esperar sin ningún problema, porque yo creo que aunque nada más sea visualmente, la plaza tal y como está deja mucho que desear, y el club de remo pues no tiene ese problema, aunque nada más sea visual, que tendrá otros pero ése no, y creo que eso sí que el ciudadano lo tiene que ver lo tiene que notar que llevamos ahí empatanados pues un montón de tiempo con unas cosas a medias sin saber muy bien como va a terminar o de qué manera va a desarrollarse todo eso, cuando esa voluntad la vea plasmada y vea con el seguimiento y el dinero suficiente para volverlo hacer, pues diré que estoy equivocado, pero mientras tanto mi sensación es ésa y no estoy diciendo más que eso, que mi sensación es ésa sin entrar en otras muchas más valoraciones que se podían hacer como consecuencia de este cambio pero que a lo mejor no es el momento oportuno, pero ésas en concreto como se abandona esas dos cuestiones que políticamente en su momento estuvieron aprobadas y habladas pues considero que hay una dejación,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Cristina, Ezerrez;
Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Zesioaren inguruan, joan den urtean hasi ginen gestio hauek egiten, lokalaren jabeekin, gu harremanetan jarri ginenea beroiekin ba... operazioaren terminoak ba.. gaur egun aurrera eramango diren terminoetan izango zen; lokala ba... udalak erosi eta titularitatea lortzeko borondadearekin, baino gure disgustorako arau subsidiarioetan bertan zer aurreikusten zen eta nola ordenatzen zen nola kalifikatzen zen gune hori ikusirik, ba.. horko fitxa edo horko bai fitxan agertzen zen bertako lokal horren zati bat zesio bidez udalari eman behar

zitziola eta zesio horiek zeudela pendiente egiteko eta.. orduan ba.. pixka bat gaia bertan utzi genuen eta bai arauak gaur egun ba...bigentzia dutenak eta aurrekoak aztertu genituen sakon, denbora dextente eramanez digu, eskatu ditugu ba... behar genituen dokumentazio guztiak ba... Azpeitiko Erregistrora eta beste leku askotara, eta azkenean gure udaletxeko teknikariek ez zuten ikusten inondik inora zesio horiek egikaritzea ba... posible izango zenik, ez zuten inolaz argi ikusten, aldiz bai ikusten zutena zen ba... genituen balorazioak egokiak zirela eta iritsi garen akordioan irizteko aukera egongo balitz, akordio ba... ona izango zela udalarentzako eta arauak bertan zituen gabezi batzuk ba... zuzentzeko modu eraginkor bat izan zitekeela ondoren arauaren anbiguetate edo ez fintasun horrek fitxa horretan, ba... agian udalari arazoren bat edo beste sortzeko aukera egon zitekeelako, ez gune horretan konkretuan, soilik, baizik eta beste batzuetan ere agian izan zitekeela, orduan guk neurri batean musin egiten diogu bertan agertzen den ba... horrelako hipotekikoki eduki genezakeen ba.. eskubide bati zeren eskubide hori egikaritzea ez dute inondik inora ba... bideragarria ikusten, baino bai egiten duguna da bertan gaizki definitua dagoen ambito horren titularitatea aldatu eta definizio egokiago bat emateko aukera egongo da hemendik aurrera eta fitxa hori zituen gabezi batzuk ba... zuzenduko dira,
Eta ez dakit, beste galdera bat edo... ez dakit horrekin ia.. joan zaidana...
Ez.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA, AND.: Barkatu eh?
Gauza bat, labur bat. Hala ere....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik, M. Eugenia gauza bat erantzun nahi dut, bakarrik,
Ludotekan asuntorekin, hori ere kirol batzordean aipatu izan dugu, Ludoteka, nahiz eta ludoteka libratuko balitz ere, bai piraguak eta bai arraunak izango.. gaur dauzkaten gabeziak ez lirateke asebeteko baldin eta ludoteka libratuko balitz.

Beraien arabera hori aipatu delako bertan dauzkaten furgonetak eta bertan dauzkaten materialak batez ere piraguetakoak, ba... goiko bai libratuko litzake esaten dute bestuario batzuk egingo balirake, baino piraguetan ibiltzen dituzten materialak horietarako lokal haundiagoa behar dute eta printzipioz, pentsatuta dago hor dihoan lokal hori, bai furgonetak eta bai material haundi horiek, karroak, karro haundi horiek lagatzeko.

Horregatik esan nahi dut ludoteka libratuko balitz ere, problemak hor jardungo lukeela, eh? Besterik gabe,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta adibidez, zeran... Bidabe azpian udalaren jabetza den lokal luze horretan?, ez dakit, ez dago desde luego itsaskiroldegitik hogeitahamar metrotara... eta akaso gauza hauek kirol batzordean eztabaidatzeko modukoak izaten dira eta ez pleno batetan horrela jarduteko, eta akaso denak eztabaidatuta daukazute, baina guri iruditzen zaigu zenbait konbinazio desberdin egon daitezkeela. Dena den nik, Andoni eskertzen dizut zure adierazpena, baina onartzen dut hala ere ez dudala oso ondo ulertzen zer den arauetan agertzen den eta egikaritu ezin daitekeen zeso hori. Eta eskatuko nioke Idazkaritzari mesedez idatzizko txosten bat egiteko zer den arauak esaten duen horren inguruan, eta nola erabakitzen den, gaizki edo ondo egon, arauak esaten duen hori ez betetzea, eta nola hori egin daitekeen araua bera aldatu gabe, zuzentzeko.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskari horren ondotik, bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ezezko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezezko botua, PSOE-k?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Abstención,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Abstentzioa, Ezker-Batua?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, ANV-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (1 EB-Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)

Aurkako botuak: 2 (PNV-EAJ)
Abstentzioak: 1 (PSOE)

LEHENEGOA: ZUMAIAKO
UDALEKO -8-. KREDITU
ALDAKETA ONARTZEA,

BIGARRENGOA: Erabaki
hau legeak agindutako eran
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
argitaratzea jendeak horren berri
izan dezan.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 (1 EB-
Berdeak/Aralar; 3 ANV; 2 EA)

Votos en contra: 2 (PNV-EAJ)
Abstenciones: 1 (PSOE)

PRIMERO: Aprobar LA
MODIFICACION DE
CREDITO N° -8- DEL
AYUNTAMIENTO DE
ZUMAIA

SEGUNDO: Publicar en legal
forma el presente acuerdo en el
Boletín Oficial de Gipuzkoa para
general conocimiento.

Besterik gabe, Hirugarren puntua PERTSONALA:

3.1.- ZUMAIAKO UDALEKO LANGILEEN LAN BALDINTZEN (2008-2010) HITZARMENAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA.

ANDONI?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Zumaiako Udaleko langileen lan baldintzak arautuko dituen hitzarmen berriaren negoziazio mahaia eratu denetik, hiru bilera egin dira udal ordezkari, ELA eta LAB sindikatuetakordezkarrien artean, 2008ko azaroaren 5ean lehenengoa; 2008ko azaroaren 12an bigarrena eta 2008ko azaroaren 18an hirugarrena,

EUDEL-en Udalhitz onartu zuten eta udaletxe honetan gauden indar politikoak Udalhitz bere horretan ez genuela onartuko ba... jakin bagenekien, zeren Udalhitz onartu zenean, PNV-k soilik sinatu zuten alderdi politikoetatik eta ELA-k Comisiones eta UGT-ek sinatu zuten Alderdi sozialetik, Alderdi sozialetik babesa nahikoa eduki bazuen baina gure iritziz behintzat Alderdi politikoaren aldetik babesa ba... behar zuena baino eskasagoa zuten eta PNV-k ba... udaletxe guztietan mayoria

absolutua ere izan ez duenez, ba.. udaletxe honetan gure Gobernuaren borondatea izan da Udalhitz honi hobekuntza dokumentu bat txertatzea, eta hobekuntza dokumentu hori negoziatzeko mahai bat ireki eta garatu dugu lehen aipatu ditudan fetxa horietan bildu garelarik,

Aipaturiko bileren berri eman zen 2008ko azaroaren 12ko Pertsonal Batzorde Informatiboko bileran: bertan LAB eta ELA sindikatuek aurkezturiko plataforma eta eskaeren azalpena egin zen, eta Udal Gobernuak eskaera horien aurrean egindako proposamenak plazaratu zituen.

2008ko azaroaren 20an Zumaiako Udaleko langileen batzarrerako deiladia egin zen; bertan Pertsonaleko Arduradunak Udal Gobernuaren proposamenaren berri eman zien langileei.

Udal Gobernuaren proposamenak onartu ziren langile batzarraren aldetik, 19 bozka alde, 5 abstentzio eta aurkako botoz gabe.

2008ko azaroaren 24ko Pertsonal Batzordeko bileran diktamena aurkeztu zen, berriro ere langile eta Udal Gobernuaren arteko akordioen berri emanez.

Diktaminatu zen, diktamen horrek plenora ekartzeko ahalbideratu zuen eta hau da orain oinarrizko akordioez gain adostu diren hobekuntzak:

1.- Interinitate edo bitartekotasunaren murrizketa:

2010 urterako %6ko gehienezko interinitatea edo bitartekotasuna erdiesteko neurriak hartzea.

2007. urtearen bukaeraldera udaletxe honek zuen interinitatea % 30aren inguruan zebilen, 39 langile genituen eta horietatik 11 interino ziren, gaur egun ba... kontratazio berriak direla medio eta kontratazio horiek ba... laister egonkortzeko ba.. borondatea dugu, ba.. interinitate maila hori gora egin duela esan behar dugu, baino 2010. urterako % 6aren azpitik egoteko intentzio irmoa dugu, hurrengo urtean lan eskaintza publiko potente bat egingo dugu eta 2010ean berriro ere bide horretatik jarraituko dugu eta 51a bat langile izango ditugu, horietatik ba... sei edo izango direla interino jada hurrengo urterako sei, zazpi edo zorti gehienez izango dira interino eta 2010ean ba... egingo dugun lan eskaintza publiko horretan interinitate hori ba... jeisten jarraituko dugu,

Esan behar da baita ere, ba.. gaur egun Kontuhartzaile-Idazkari plazan ba... pertsona bakarra dagoela interino dagoela bera ere, Idazkaria datorrenean ere interino izango da, behintzat ez du propietatean edukiko plaza, zeren habilitazio estatalekoak dira plaza horiek, eta bi lanpostu horiek behintzat horko interinitatearekin bukatzeko hartu behar diren, eman behar diren urratsak ba... udal honen esku, egon ez daude, baina gu bai egingo duguna da urtero-urtero dauden bi eskaintza publikoetan edo ba... lanpostu horiek eskaini,

Beraz, hurrengo urtean egingo dugun lan eskaintza publiko potente horren ondotik, 2010ekoa ere etorriko da, eta 2010erako % 6ko interinitatearen azpitik egoteko ba... bidean gaude, kontratazioak egingo dira eta interinitatea ere jeitsiko da, 39-tik 11 interino egon baldin bazeuden 51 langile izatera pasatuko gara gutxienez eta interinitatea ba... lau, bost langile gehienez izango da, gero,

Hitzamenaren mailaz mailako gutxieneko soldatak, bigarren hobekuntza edo.

Mailez mailako hitzarmenaren soldata taulak maila guztietarako gutxieneko soldataren izaera izango du (ez orientatiboa).

Esan behar da orain artean horrela izan dela eta horrela izango dela, guk hori aldatzeko inongo borondaterik ez dugulako.

Udaletxe batzuetan, dirudienez, orientatiboki erabiltzen dituzte maila hauek, baina Zumaiako udalean ez da horrela izan eta ez da horrela izango.

Hirugarren hobekuntza- Soldata igoera:

Hitzarmen honek izango lukeen indarraldian (2008-2010), soldataren igoera KPI+1 izatea. Puntu bateko igoera modu linealean egingo da, langile guztien soldaten baturari % 1eko igoera aplikatuz, eta langile kopuruaren artean zatituz.

Honek esan nahi du, ba.. hartuko dugula langile guztien soldata brutoa, kantitate horren % 1a kalkulatu dugula eta 43 langile egon baldin badaude, 43 langileen artean zatituko dela kopuru hori eta guztiei kopuru berdina aplikatuko zaiela, orduan aurten egongo den igoera izango da KPIa bakoitzari gehi kantitate zehatz bat guztiontzako berdin,

Soldata tartearen txostena eta aplikazioa.

Behin soldata igoera hau aplikatu ondoren, honen ondoriozko soldata tartearen emaitzari buruzko xehetasun txostena egingo du Udalak, soldata tartea 1/2 eta 1/3 bitarteko proportzioa ematen dela bermatu arte.

Honek esan nahi du, gutxien kobratzen duena, udaletxe honetako soldatarik baxuena ezin du izan soldata altuena baino hiru aldiz gutxiago, soldata baxuena bider hiru egiten baldin badugu gehienez hori izango litzateke altuena, gaur egun hori horrela izango da, eta horrela da, eta akordio edo hitzarmen hau irauten duen bitartean horrela izango denaren arriskurik ez da egongo. Horretarako ere aurreko linealtasuna aplikatzen da, zeren urteen poderioz IPC-a modu ba... indibidualizatu batean

aplikatzen baldin bada ez da berdina ba...25 mila euro irabazten duen pertsona bati % 5,2 ko igoera aplikatzea, horrek bai izango zuen ba... igoera bat X, baino 50 mila euro kobratzen duenari portzentai berdina aplikatzen baldin bazaio X bider bi igoko zaio soldata, eta aldeak edo tarteak nabarmentzen joaten dira, horretarakotxe alde horiek modu motelago baten zabaltzen joateko linealtasunaren aldeko apostua egiten dugu,

5. puntua- Norbere eginbehar edo arazoetarako baimena.

Hemen esan behar Udalhitzen 2008ko lau egun aitortzen zaiela langileei; 2009ko bost egun eta 2010ean zazpi egun.

Bada lege estatal bat la “ley del empleado público” edo dena delakoa eta bertan aitortzen diren egun kopuruak dira:

6 egun 2008rako; 6 egun 2009rako eta 6 egun 2010erako. Udalhitzen ba... sindikatuek ba...erreibindikazio hori edo eskubide horiek muzin egin zieten eta beste akordio batetara iritsi ziren Eudelekin eta guk hor planteatzen duguna da, aurten gauden alturan egon da, bi egunetan mantentzea ez lau egunetara ez iristea, bi egun mantentzea, baina bai hurrengo urtean sei egunak aitortzea eta hurrengo urtetik aurrera ba... lege hori beteko du udaletxe honek.

Beraz, aurten hartuko ez diren bi egun horiek, 2009an eta 2010ean banatuko dira, orduan 2009an sei egun gehi bat 2008ko Zazpi izango dira; eta 2010ean sei egun gehi bat 2008koa Zazpi egun izango dira, aurrera begira sei egun izango liratezke, orduan Udalhitzen akordioa egun batean meioratzen dugu, Udalhitzek hiru urteetan hamabost egun aitortzen zizkien langileei eta guk lortu dugun akordio honetan hamasei egun aitortzen dizkiegu, baino beste banaketa modu batean,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Andoni faborez, lehen hamar minutu, nola pasa diren eta arauak pixka bat errespetatzeagatik poliki-poliki laburbilduz, bukatzen joan zaitez,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Esplikatu beharrekoa da hau eta ez dakit, **Udal Zerbitzuen kudeaketa zuzena, azpikontratazioa eta homologazioa.**

Xabi-ri ere lana errazteko, mantso xamar ere nahi dut egin edo saiatzen naiz behintzat,

Udalak zuzenean kudeatzen dituen zerbitzuek kudeaketa mota horrekin jarraituko dute, eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean berauek ez azpikontratatzeko konpromisoa hartuko du Udalak.

Kontratuak amaitzean pribatizatutako zerbitzuak beren langileekin ahal den neurrian itzultzeko konpromisoa hartzen du Udalak eta langileen lan baldintzak homologatzea ahal den neurrian zerbitzuak itzultzen ez diren bitartean.

7.- Aldi baterako ezintasun edo baje osagarriak.

Hemen bi sindikatuek eskatzen zutena zen aldi baterako ezintasun edo baje osagarriak, gaur egun lehendabiziko sei hilabetetan % ehuna kobratzen da eta bigarren sei hilabetetan urtebete egon baldin badaude baje % 80a kobratzen da. Eskatzen zutena zen % ehunera kobratzea, ezintasun guztian zehar, urte osoan zehar, gure erantzuna izan da gaur egun zein ba.. indize absentismo indizea zein den ba... aztertu behar dugula aurreko urteetan zein indizetan ibili garen, aztertu behar dugula eta indize horien ba... azterketa horren ondotik helburu batzuk jarri behar ditugula, helburu batzuk ba... guk indize normalizatu batzuk zeintzuk diren gure iritziz mahai gainean jarriko dugu eta indize horietan mugitzen garen bitartean hobekuntza batzuk egon daitezke, behin indize horiek gainditzen ditugunean non... hobekuntza horiek ezingo genituzke soportatu, zeren azkenean ba... plantila haundituala bajak ere haunditzeko edo gehiago izateko arriskua dago eta horrek zer kostu eduki dezakeen ba... aurreikusi, landu eta objetibo batzuk markatu behar ditugu, lortuko balira ba... hobekuntza batzuk egongo liritezke eta hortik gora gaudenean, ba... gauden egoeran geratuko ginateke, honetarako sindikatuekin lanerako mahai bat osatzea proposatu diogu eta hurrengo urtean zehar gai hau nola arautu ba... adostekotan geratu gara,

8. puntua.- Aparteko orduak:

Udaltzaingoan soilik zeuden aparteko orduak ordainduak, gaur egun, eta egin diren kontratazio berriekin gaur egun ba... udaltzain bat gehiago dagoela kontuan hartuta ba... ordu extra horiek ordaintzen jarraitu beharrik ez dagoela ba... ondorioztatu genuen zerbitzuko arduradunarekin hitzegin ondoren eta ordaintzeari uztea ez du suposatuko zerbitzuan horrelako gabezi bat sortzea, eta hemendik aurrera sartu behar baldin badira, sartzen direnean ondoren disfrutatu edo denboraz konpentsatuko dira ordu extra horiek eta ez dira gehiago ordainduko, gero

Funtzionarioen erretiro partziala.

Funtzionarioek ez dute eskubide hori, gaur egun ez dute kontratu errelebora, kontratu erreleborik aplikagarri beroientzako eta egin ziguten eskaera izan zen ba... udaletxe honek kudeatu zezala espediente hori, egin zezala eskaera hori Seguritate Sozialari, jakinik Seguritate Sozialak ez duela hori onartuko, eskubide hori ez delako aitortzen ba... funtzionarioei, denek jakingo dute, langileak, sindikatuak jakingo dute, eta bueno, behin erantzun hori negatiboa denean eta etortzen zaigunean erantzun hori, ba... sindikatuek edukiko dute aukera lanketa sindikal bat egiteko eskubide edo erreibindikazio hori aurrera eramateko beste instantzi batzuetan.

Eskatu ziguten guri ba... tramitazio hori egitea beroientzako garrantzitsua zela eta guk konpartitzen ditugu beroien helburuak eta egingo genuela, onartu genuen eta

10.puntua.- Lan egutegiaren barne arautegia.

Lan egutegiaren barne arautegiaren gaia aztertu ahal izateko Udal ordezkari eta langileen ordezkarien artean mahai bat eratuko da: ordu poltsa eta orduen konpentsazioari buruzko azterketa egingo da lan egutegiari dagozkion beste gaien artean.

